

Linschmann-Aresti legea Lazarragaren testuan

Mikel Martínez Areta

UPV/EHU

Laburpena

Lan honetan, Linschmann-Aresti legearen egoera Lazarragaren eskuizkribuan aztertzen da. Lehenik, testuan zehar jasotako datu zehatzak islatzen dituzten bi taula ematen dira. Bi taula hauek zehazten diren irizpide batzuei jarraiki egin dira. Ondoko atalean, azpiatal ezberdinetan legearen salbuespen bakoitza edo sabuespenen talde bakoitza eztabaidatzen da, haienezako azalpen bila. Zenbait kasutan, lege orokorraren gaineko azpilege moduko bat proposatuaz; beste zenbait kasutan, testuan legearen hauste bakan batzuk gertatzen direla erakutsiaz, gehienetan Mendebaldean hurrengo mendeetan nagusituko diren joeren norabide berean. Iparraldeko eta Mendebaldeko testu zaharrekiko erkaketaren bidez, Lazarragaren testuan azaltzen den legearen kokapen historikoa deskribatzen da.

0. Sarrera*

Artikulu honetan Linschmann-Aresti (= LA) legea¹ Lazarragaren testuan nola eta zein neurritan betetzen den aztertuko dut, eta betetzen ez den kasuak iruzkinduko. Abagune honetarako gai aproposa delakoan nago, kontuan harturik Sarasola (1980) bide-urratzaile dugula auzi honetan. Lan hartan Sarasolak LA legearen betetzea XVI. mendeko lekukotasunetan eta haren geroztiko suntsitze prozesua euskalki ezberdinetan ikertu bazituen (3. pertsonak sartzen

* Lan honek hiru ikerketa proiekturen laguntza jaso du: 1) «Monumenta Linguae Vasconum IV: historia, crítica y edición de textos vascos» [= FFI2012-37696], Joseba Lakarrak zuzendua eta Espainiar Gobernuko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzatua; 2) «Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada» (HLMV-LHC), Ref. GIC 10/83, IT 486-10, Joaquín Gorrochateguik zuzendua eta Eusko Jaurlaritzak finantzatua; eta 3) «Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara» Heziketa eta Ikerkuntza Unitatea (UFI 11/14), Euskal Herriko Unibertsitateak finantzatua. Nire eskerrak bihoazkie Blanca Urgelli, Manu Padillari eta Ricardo Gómezi lanaren aurreko bertsio bat irakurtzeagatik eta/edo Linschmann-Aresti legearen eta Lazarragaren eskuizkribuaren inguruko zenbait aspektu nirekin eztabaidatzeagatik. Akatsak nireak dira.

¹ Laburdurak: LA legea = Linschmann-Aresti legea; EBZ = Euskara Batu Zaharra.

ez zituela), jarraian garai hartan ezagutzen ez zen Lazarragaren eskuizkribuko datuen bidez saiaturiko naiz Kintanak (1971, 2004: 588-590), Sarasolak (1980), Rebuschik (1995), Traskek (1997: 239-240) eta bestek XVI. mendeko zirriborraturiko egoera osatzen, parametro honi dagokionean.

Oro har, beste zenbait arazotan bezala (pentsa dezagun menpeko perpausetako *l*- hasieradun aditz jokatuiez), LA legean ere Lazarragaren eskuizkribua Sartaldearen eta Sortaldearen arteko lokarri antzeko bat gertatu da, hartan Euskara Batu Zaharraren (EBZaren) ezaugarriei gainontzeko iturri mendebalderetan ez bezalako distira dariela. Horretan datza, aspektu literarioak albo batera utzita, eskuizkribuaren balio linguistiko nagusia.

1. Linschmann-Aresti legea aztertzeko irizpideak

2. ataleko 1. taulako datuak zenbatzeko eta sailkatzeko irizpideak honakoak izan dira. Ardatz bertikalean eskuizkribuko genitibozko pertsona-izenordainak pertsonaka sailkatu dira. Ardatz horizontalean, ordea, hiru zutabe jarri dira: 1) aditz jokaturiko perpausak, 2) aditz jokatugabeko perpausak, eta 3) bokatiiboak eta aditz isileko edo aditzik gabeko perpausak. Bigarren taldean sartu dira, aditz jokatugabeko perpaus arruntekin batera (adib. *Bere cantaeeta Sirenac acabaduric*; AL: 1143r), aditz jokatugabeko aginterazkoak (adib. *Ez bildurric ceuren biocetan artu*; AL: 1153r) eta alboko perpausetik koordinazioan izateagatik aditz jokaturia isilean gordetzen dutenak (adib. *ceuren ezpataoc escuetan artu, ta, belaurico jarri[ri]c, espiluonetara beguira çaoçela*; AL: 1153v). Hirugarren taldean, aldiz, bokatiibozko sintagma (adib. *Ay, Silvia, ene laztana!*; AL: 1152r) eta aditz isileko perpausak (adib. *Gure ortuan madari*; A4: 9) batu dira. Norbaitek pentsa lezake hirugarren taldean aipaturiko bi azpitaldeak bereiztea komeniko litzatekeela. Datuen interesa, hala ere, ez da hortik azaldu, eta hortaz nahiago izan dut *entia non sunt multiplicanda praeter necessitatem* printzipioa aplikatu. Dena den, bokatiibozko sintagma ergatiboa dagoenean, adib. *Ene laztanorrec, / arren, esaçu* (A5: 13-14) esaldian, genitibozko izenordaina aditz jokaturiko perpausetan sartu da.

Zutabe bakoitzaren barnean, genitibozko pertsona-izenordain bakoitzak lau balore posibleetako bat hartu du: 1) forma neutroa da eta legea betetzen du (= n.), 2) forma indartua da eta legea betetzen du (= i.), 3) forma neutroa espero genukeen testuinguru batean indartua azaltzen da (= n. > i.), eta 4) forma indartua espero genukeen testuinguru batean neutroa azaltzen da (= i. > n.).

Aintzat hartu dira ez bakarrik genitibozko formak (*ene, neure, çure, çurea...*), baita genitibotik eratorritako kasuetan daudenak ere (*enegaz, neuregaz, çureçat, çureçat...*), hauek genitibotik eratorri direnean, jakina (*ene-gaiti* eta *çuregaz* bai, baina *nigaiti* eta *çugaz* bezalakoak ez dira analisisan sartu).

Zuzenduriko aldaerak (adib. *çure lacooc*; B5: 19 > *çure lacoagan*; A16: 37, non *çure* > *çu* zuzendu den, *-re-* tatxatuaz) ez dira sartu, eta testua zatika dagoeanean bakarrik hartu ditut aintzat testuinguru sintaktiko argian ageri diren formak.

2. Analisiaren datuak

Aurreko irizpideei jarraiki, nire zenbaketaren arabera Lazarragaren eskuizkribuak 1. taulako datuak agertzen ditu LA legeari dagokionez.

1. TAULA

LA legearen datuak Lazarragaren eskuizkribuan

	Aditz jokatuako perpausak				Aditz jokatugabeko perpausak				Bokatiboak eta aditz isileko perpausak			
	n.	i.	n.>i.	i.>n.	n.	i.	n.>i.	i.>n.	n.	i.	n.>i.	i.>n.
1.sg.	76	45	1	3	10	8	0	1	65	0	0	0
2.sg.(hi)	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
3.sg.	29	61	6	0	3	26	2	0	1	0	0	0
1.pl.	6	1	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0
2.sg.(zu)	59	30	0	1	5	3	1	1	2	0	0	0
2.pl.	10	0	0	0	1	2	0	0	0	0	1	0
3.pl.	7	11	1	0	0	4	2	0	0	0	0	0

1. taulako datuetatik LA legearen betetze / hauste proportzio hutsa erauzi nahi baldin badugu, berau 2. taulak darakuskigu.

2. TAULA

LA legearen betetze / hauste kasuak Lazarragaren eskuizkribuan

	Aditz jokatuako perpausak		Aditz jokatugabeko perpausak		Bokatiboak eta aditz isileko perpausak		Orotara	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
1.sg.	121	4	18	1	65	0	204	5
2.sg.(hi)	1	0	0	0	0	0	1	0
3.sg.	90	6	29	2	1	0	120	8
1.pl.	7	0	1	0	1	0	9	0
2.sg.(zu)	89	1	8	2	2	0	99	3
2.pl.	10	0	3	0	0	1	13	1
3.pl.	18	1	4	2	0	0	22	3
Orotara	336	12	63	7	69	1	468	20

1. taulak erakusten dituenak baino parametro gehiago sar litezke jokoan, hala nola aditz jokatuکو perpausetan zein sailetakoa den aditz jokatu (Nor, Nor-Nori, Nor-Nork edo Nor-Nori-Nork), eskuizkribuaren zein tartetan (AL, A edo B) agertzen den forma bakoitza, etab. Baina xehetasunei bakarrik emango diet arreta LA legea betetzen ez den kasuetan. Berauei ekingo diet, beraz, ondorengo atalean.

3. LA legea hausten den kasuen analisia

Legearen hausteko kasuak aztertuko ditut jarraian, haietarako azalpenen bila. Helburuetako bat EBZean LA legearen izaera zehaztea izango da. Hartara, Ekialdeko edo, zehazkiago, Iparraldeko iturriekiko erkaketa funtsezkoa da. Gehien erabili dudana autorea, ekimen honetan, Axular da, ezaguna denez LA legearen funtzionamenduaren ikuspegitik haren lana erregularrena baita eta, hortaz, itxura guztien arabera EBZaren egoeratik hurbilena. EBZetik Mendebaldeko euskararako (edo Arabako euskararako) bidean LA legearen funtzionamenduan aldaketarik gertatu den zehazte aldera, Mendebaldeko iturri zaharrenak ere kontuan hartu dira.

3.1. LA legearen etendura perpausen barneko esparruetan

2. ataleko tauletako datuak erdiesteko, LA legearen formulazio klasikoari jarraitu diot (Sarasola 1980; Rebuschi 1995). Baldin eta genitiboak pertsona-izenordain jakin bat dagoen perpausan (nagusian edo menpekoan) pertsona horri (3. pertsonen kasuan, sintaktikoki zein semantikoki) dagokion marka (agerikoa edo ez-agerikoa, eta ez-alokutiboa) baldin badago, orduan genitiboak pertsona-izenordain horren forma indartua azaleratuko da; bestela, forma neutroa da azaleratuko dena. Aditz jokatuگabeko perpausetan, perpausaren sakoneko egituraren atzean dautzan argumentuak zeintzuk diren begiratu da. Hauetako bat genitiboak pertsona-izenordainaren pertsonari dagokio, orduan forma indartua azaleratuko da, eta bestela neutroa.²

Dena den, prozedura honen aplikazio hertsia LA legearen haustea aurreratu du kasu batzuetan non, legearen haustea baino gehiago, formulazio klasikotik haraxeago doazen gorabehera apur batzuk topatzen ditugun. Erka ditzagun honako adibideok:

- (1) a. *çan lastima andia [[norc bere biocean eucan] tristezea ecusten]*
(AL: 1146r)
b. *lauoc batera nor bere ardiaquin joacela*
(AL: 1152r)

² Esango nuke hauxe dela, azken finean, Rebuschiren (1995: 326-328) prozedura ere, Axularren aditz jokatuگabeko perpausak aztertzeko, prozeduraren formulazio zehatzik egiten ez badu ere.

LA legearen aurreko formulazio hertsiaeren arabera, (1a) adibidean legea betetzen den bitartean, (1b)-n ez da betetzen, eta horrela interpretatu dira datuok 1. eta 2. tauletan. (1b)-koaren antzeko *a(r)en > bere* beste hiru hauste ditugu AL: 1153r-n, A26: 163-164-n eta AL: 1153v-n. Hala ere, (1b)-ren legearen hausteak azalpen sinplea du: [nor_i bere_i...] egiturek barneko esparru bat osatzen dute, zeinetan bi elementuen arteko erreferentziakidetasunak genitibozko izenordain indartuaren agerpena eskatzen duen, inguruko testu-inguru sintaktikoa zein-nahi ere den. Hau EBZetik jasotako ezaugarria da, (2a, b) adibideek darakuskiguten bezala:

- (2) a. *norc bere herrico edo erresumaco arauaz differentqui esquiribatcen baitituzte* (Ax, Gero 9)
 b. *lehoiñ hunen eritassunaren berria bertcé animalec entçun çutenian, oroc, norc beré aldian, bedera, bedera, beré visita eman çutela lehoiñ hari, (...)* (Tt, OHB 67)

Bada, hala ere, ezberdintasun garrantzitsu bat (1b)ren eta (2a-b)ren artean. (2a-b) ez dira LA legearen hausteko benetako kasuak, ezta legearen formulazio hertsiaeren arabera ere. Hala Axularren nola Tartasen lanetan, *nor* eta *bere* elementuak ez dira singularrak, haietan sg./pl. oposaketa neutralizatzen baita. Lazarragaren hizkeran ere ez dago Mendebaldeko beste hainbat iturritako *nortzuk* berrikuntza, *nor*-ekiko oposaketa bat era lezakeena. Hortaz, *nor* ez da ez singularra, ez plurala. Aitzitik, (1b)ko *bere* singularra da, autore arabarraren lanean 3. p. pl.eko genitibozko izenordain indartua *euren* baita, ez *bere*. Formulazio hertsiaeren pean, LA legea ez da betetzen. Egoera zaharra Axular eta Tartasena da, noski. Geroago, Mendebaldean *euren* (nonbait, berrikuntza bat, jatorria gorabehera) sortu zen, baina [nor_i bere_i...] egitura bere hartan mantendu zen baita perpauseko aditz jokatuan *i*-ri zegokion marka plurala zenean edo aditz jokatugabeko argumentu isila plurala zenean ere, (1b)n bezala.³ Azken finean, *Vinieron cada uno por su camino hasta Bilbao* bezalako zenbaki-komunztadura hertsirik gabeko perpausak Europako hizkuntza gehienetan topatzen ditugu.

Are interesgarriago da LA legearen haustea honako adibidean:

- (3) [*Acabaduric leen esan dogun cantaeteau,*] *Silvero eta bere lagunac joan citecen ciudadera* (AL: 1144v)

(3)n *aren lagunac* espero genuke perpaus nagusian, *citecen*-en argumentu bakarra ‘haiek’ baita. *Silvero*, *bere*-ren erreferentziakidea, ‘haiek’ horretan sartuta dago, eta baliteke hori *bere* agertzeko faktore semantiko bat

³ Eta bertsua esan dezakegu, behin *beren* sorturik eta *bere* (sg.) / *beren* (pl.) oposaketa morfologizaturik, gainontzeko euskalkiez.

izatea.⁴ Nolanahi ere den, egitate sintaktikoa honakoa da: Lazarragaren hizkeran LA legearen gainean beste lege bat gailendu da, zeinen arabera [A_i eta haren/bere-_i B] egiturako izen sintagmetan erreferentziakidetasunak forma indartuaren agerpena eragiten zuen, inguruko testuinguru sintaktikoa zein nahi ere zen. Ez dut aurkitu, Lazarragaren testu osoan, prozedura honen erregulartasuna baieztatu edo deuseztatu lezakeen beste agerpenik. Iparraldeko testuetan, ordea, ez da gertatzen, (4a)k eta (4b)k darakuskiguten bezala:

- (4) a. *Eta Iesus eta haren discipuluac [handic ilkiric] ethor citecen Philipperen [Cesarea deitcen deneco] burguëtara*
(Leiz, *Mk* 8, 27)
- b. *Prometatu cerauen gure Iaungoicoac Abrahani eta haren ondo-coey, [emanen cerauela Iudeaco erresuma on hura.]*
(Ax, *Gero* 82)

Berrikuntza da, beraz. Lazarragarena ala Mendebaldeko euskararena? Ezin esan, eta ez dugu pentsatu behar puntu honetan, beste hainbatetan bezala, Mendebalde osoak aldi berean eta eskualde linguistiko homogeen baten bezala jokatu duenik. Kapanagaren Dotrinan (i.e., Ripaldarenaren haren itzulpenean), behinik behin, prozedura ez omen da aplikatzen, (5a)k erakusten duen bezala (*Christocen* ondoko koma gorabehera). Mende eta erdi georago, ordea, Añibarrok bere *Geroko Geroren* itzulpenean (4b) bizkaieratzeko (5b) demagut:

- (5) a. *Chritiñau gustiac [bat] izaitea, [Christoc, eta aen Vicarioac Aita Santu Eromacoac goberneetan dabeena.]*
(Kap, *EBDC* 55-56 orr.)
- b. *Esqueñi, opatu ta aguindu eutsan gure Jangoicoac Abrani ta bere ondocoai, [emango eutsela Judeaco erreinu ta erri ona.]*
(Añ, *GG* 9-212/213)

Dena den, Añibarroren bizkaieran [A_i eta haren/bere-_i B] egitura ez da testuinguru bakarria zeinetan LA legea ez den betetzen 3. pertsonarako, legegaren hauste prozesua aski aurreratuta baitago, hala 3. pertsonetan nola 1. eta 2.ean (ik. Urgell 2001: CXXXV-CXXXVI, adibide gehiagorekin).

Antzeko azalpena dukegu Lazarragaren testuko LA legearen honako haustean:

- (6) *Lau urtebete, euren gabaquin, ceure oñetan naucaçu.* (AL: 1144r)

⁴ Ik. Rebuschi (1995: 323), honen inguruan. Edozein kasutan, 1. pertsonan behintzat faktore semantiko berbera ez da nahikoa beste honetan izenordainaren forma indartua eragiteko: *ene la-gunau eta ni goaç ara* (AL: 1147v). Honetan, dena den, genitibozko izenordainaren izenordain erreferentziakidea ondoren agertzen da.

Lau urtebete, euren gabaquin ez da EBZetik jasotako ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egituraren ohiko agerpen bat (ik. §3.2), gaztelaniazko lirikatik mailegaturiko esamolde bat baizik. Egitura zahar horretan bezala, dena den, adiera koordinaziozkoa da, eta zentzu horretan hausteko arrazoia izan daiteke [A_i haren/bere-_i B-rekin] esparruaren barnean LA legearen efektua eten egiten dela, eta erreferentziakidetasunak forma indartuaren agerpena eragiten duela, inguruko testuinguru sintaktikoa zein-nahi ere den. Ez dut aurkitu adibide identikorik Iparraldeko iturrietan, baina honelako kasu batean Axularrek behintzat forma neutroa erabiliko lukeen susmoa daukat.⁵

3.2. LA legea eta ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egitura

Ikus ditzagun orain Lazarragaren testuko honako agerpenok:

- (7) a. *Bada bere, nai ez neuque, mundu guztiagaitirren, [çuregaz ene secretoa descubri lidin] bapere* (AL: 1144v)
 b. *Donzellea, cegati çaoz enegaz enojaduric, [çurequin ene aitasuna orrela anci jaquinic?]* (AL: 1142v)
 c. *çurequin ene faltaoc estalico det.* (A5: 25-26)

Hirurak dira ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egitura koordinaziozkoak. (7a) n legea betetzen da. (7b)n, ordea, legea ez da betetzen. Itxura guztien araber, aditz jokatugabeko menpeko perpauseko isileko argumentuak ‘(gure) aitasuna - zuri’ dira. Hala bada, *çeurequin* espero genuke. (7c)z denaz bezainbatean, justu kontrakoa ageri da: *çurequin* esperogarria da, baina *enere* ordez *neure* espero genuke. Azpimarratu nahi dut *çeure* > *çure* 2 aldiz eta *neure* > *ene* 3 aldiz gertatzen direla Lazarragaren testu osoan (ik. 1. taula). *Neure* 53 aldiz agertzen zaigu espero genukeen testuinguruan, eta *çeure* 33 aldiz. Kasualitate hutsa izan al daiteke betetzeko hainbeste kasuren artean 5 haustetik 2 ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egituretan agertzea? Kasualitatea saiheste aldera, honako posibilitatea bururatzen zait: balirudike ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egituretan beti azaltzen direla 1. eta 2. pertsonetako genitibo izenordainen forma neutroak, testuinguru sintaktikoa zein-nahi ere den.

Hipotesi hau Lazarragaren eskuizkributik kanpo baieztatzeko edo, behintzat, haren aldeko sustengurik bilatzeko, aurkitu beharko genuke honako lau baldintzok betetzen dituen testuren bat: 1) LA legea 1. eta 2. pertsonetan orokorrean (hau da, ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egituretatik kanpo)

⁵ Mendebaldean, agian erkagarriak dira Mikoletaren aditz isileko perpausok: *Leengo, lau alcandora euren ydun lechuguillascoacas* (Elk 14v), *Yru toalla, fruteru bat, ta cabezoc bi, euren puñuacas* (Elk 15). Haietan, Lazarragaren bezala, [A_i haren/bere-_i B-rekin] egiturak izenordainen forma indartuaren agerpena eragiten du.

betetzea, 2) ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egiturak azaltzea, 3) egitura horien artean 1. eta/edo 2. pertsonako genitiboak izenordainak agertzea, eta 4) egitura horietan LA legea ez betetzea (orokorrean legea bete arren). Mendebaldean topa bagene(it)za agerpen hori(ek), eta formak neutroak balira, hipotesia behintzat Mendebaldeko euskararako litzateke baliozkoa. Iparraldean egokitzapenik aurkituz gero, ordea, hipotesiak EBZerako ere baliozkoa izateko aukera handiak izango lituzke. Alabaina, Lakarrak (1996: 193, 2008) eta bestek emandako ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egituraren adibideak ondo arakatuz gero, esango nuke Lazarragaren eskuizkribua (eta haren (7a, b, c) adibideak) lau baldintzak aldi berean betetzen dituen testu bakarra dela.

Lau baldintzak aldi berean agertzetik hurbilenik diren kasuak bakarrik aipatze aldera, Elorrioren ediren zen amodiozko kantari (ik. *TAV*: 122), *Ene veguiacaz vioçeen artean / Errencore andiac erneçitean* irakurtzen dugu, baina bertan *ene* esperogarria da. Gandararen 1768ko «Ama maitagarriari»-ko *Izan dedilla gueure / arnasa azquena / Jesus onarequin / Ceurorren icena* lerroek ere gutxi dioskute, behintzat Arana Martijak (1984) emandako hiru lanetan izenordainen forma indartu guztiak (ez bakarrik genitiboak) orokortu baitira, eta gainera *ceurorren* forma hiperindartua da (ez da *ceure*). Bestetik, Lasarteko 1716ko bertso iraingarrietan (ik. Satrustegi 1983) *Agustinacho Ybillico nais Surequin nere gaisean* kausitzen dugu, baina testuan *nere-* testuinguru guztietara zabaldu da, eta ez da hau legearen hausteko kasu bakarra. Lakarrak (2008) emandako gipuzkera klasikoko eta ahozko tradizioetik jasotako adibide oparoen artean ere ez dut lau baldintzak betetzen dituen agerpenik (bakoitza agertzen den testu osoa ere kontuan harturik).

Ekialdeko iturrietan azken urteotan markatu diren ‘X-gaz/ekin Y = X eta Y’ egituraren kasu apurrei begira (ik. adib. Lakarra 2008: 84; Padilla 2011: 76-77; Oyharçabal 1991: 135), haietan ez dut 1. eta 2. pertsonetako genitiboak izenordainik aurkitu. Bai, ordea, 3. pertsonakoak, baina honelakorik Lazarragaren eskuizkribuan agertzen ez denez, honen azterketa sakona beste abagune baterako nahiago dut utzi.⁶

⁶ Laburbilduz, esango nuke Ipar eta Ekialdeko ‘X-ekin_i haren/ber_e-_i Y’ egiturako eraikuntzetan erreferentziakidetasunak forma indartuaren agerpena eragiten duela, edozein testuinguru sintaktikotan, eta hauxe dela LA legearen hauste bakarra, edo bakarretako bat, legearen formulazio hertsiaeren arabera, Ipar/Ekialdeko iturri zaharretan. Ikus adibidez *aygalon bere lagunequi uqhenen nutiela* (*Xarlem* 594), non ‘hura’ ez dagoen ordezkaturik aditz jokatuan. Agian hau lot liteke Mikoletaren elkarriketaren izenburuan den *Peru xauna derechan vategas, vere osseyñ Alonssoen artean* ‘X-gaz_i haren/ber_e-_i Y’ egiturarekin, zeinetan lege (zehazkiago, LA legearen azpilege) bera eraginkorra den. Egokitzapen hau polita bada ere, hala Mendebaldeko LA legearen inguruko datuak nola Ekialdeko ‘X-ekin Y’ egituraren ingurukoak urriegi dira bi kasuak EBZetik datorren harreman historiko batean ziurtasunez jartzeko.

3.3. *LA legea eta ezker aldeko destokitzea*

Esan dut 3 *neure* > *ene* bakarrik topatu ditudala testu osoan. Hona hemen bigarrena (etzanetan ez dauden kortxeteak bata bestearen jarraipen ditugu):

- (8) [*Ene bervaoc,*] *jente noblea, / ce daidiçu pensadu* / [[*neure erria alabacerren*] / *nic ditudala fingidu.*] (A6: 39-42)

Ene bervaoc osagarri zuzena da, baina ez *ce daidiçu pensadu*-rena, *ditudala fingidu*-rena baizik. Hortaz, LA legea ez da betetzen. Hurrenkera ez-markatua honakoa litzateke: *jente noblea, ce daidiçu pensadu* [[*neure erria alabacerren*] *nic ene/neure bervaoc ditudala fingidu*]. Esaldia horrela egin balu, seguru asko LA legea bete eta *neure* erabiliko zukeen. Baina olerkari arabarrak *ene/neure bervaoc* esaldi osoko mintzagai bihurtu du, eta horrenbestez berau dagokion perpausetik urruntxo geratu da. *Left-dislocation* edo *ezker aldeko destokitze* deritzagu gertakari honi. Gainera, elementu destokitua perpaus txertatu batetik atera da, eta esaldiaren hasierara iristeko ezin konta ahala hesiren gaintik igaro behar izan du. Generatibistentzako gozamen handiko esaldia litzateke, beraz.

Azalpen bat honakoa izan liteke. Mintzagai bat esaldiaren hasierara eramanez, hiztunak egiten duena gaia zein izango den aurreratzea da. Diskurtsoari izenburu bat jartzen dio, nolabait, izenburu hori, (subjektu-)predikatu muinetik kanpoko izen-sintagma bat izaki, aditzak esaldi osoan zehar barreiatzen dituen joko sintaktikoetan integraturik ez dagoela. Bokatibozko sintagmetan bezalaxe, ez da harritzekoa mintzagaietan oposaketan balore ez-markatuak azaltzea. Bestetik, mintzagaia ahoskatzerakoan hiztunak ez daki, gehienetan, esatear dagoen esaldiaren egitura zehatza, eta haren aditza, zeintzuk izango diren, are gutxiago mintzagaia dagokion perpausetik hainbeste urrundu den kasu batean.⁷ Hauxe izan liteke LA legearen hauste honen arrazoa. Jakina, hizketari loturiko argudio hauek idatzia, ziur aski berrikusia eta kopiatua izan den testu bati aplikatzeari arazotsu iritz liezaioke norbaitek. Baina olerkariaren eginkizuna unean uneko ideia jarri espontaneoak islatzea izan ohi da, lehenengo aldian esango lukeen moduan.⁸

⁷ Erka bedi ezker aldeko destokitzeko antzeko beste kasu hau: [*neure buruau*] *ez nei ondo* / [*andatan confitea*] (A24: 169-170). Guztiarekin, *buru*-ren adiera bihurkaria kontuan izanik, *ene buruau* berez ezin liteke sekula agertu (argumentu gisa, bederen), ezta mintzagaiko kokalekuan ere.

⁸ Planteamendu honen barnean, forma neutroa agertzeko faktore gehigarri bat ezker aldeko destokitzeak eragiten duen *ce daidiçu pensadu*-ren gertutasuna izan liteke, *daidiçu*-ren argumetuak 'zuek - hura' baitira. *Ene bervaoc*, noski, ezin liteke *pensadu*-ren osagarria izan, beronek ez baitu errejimen hori onartzen. Baina nolabaiteko «errejimen-erakarpen» bat gertatu dateke, gertutasunaren ondorioz.

Bada, hala ere, kasu honen LA legearen haustea azaltzeko beste posibilitate bat. Irakur dezagun (8) LA legea beteaz: [*Neure bervaoc,*] *jente noblea, ce daidiçu pensadu* [*neure erria alabacerren*] *nic ditudala fingidu*]. Edo, ezker aldeko destokitzerik gabe: *jente noblea, ce daidiçu pensadu* [*neure erria alabacerren*] *nic neure bervaoc ditudala fingidu*]. Zer du berezirik esaldi honen? Ondoko azpiatalean aztertuko dudun gertakari bat, beharbada ezinezkoa Lazarragaren hizkeran.

3.4. *Bi genitibozko pertsona-izenordain indartu perpau berean, posible ote?*

Ikus dezagun orain *neure* > *ene* motako hirugarren haustea:

(9) *arrezquero ene semea eztacust neure beguietan.* (A25: 33)

Kasu honetan, LA legea beteko bazen hauxe beharko genuke: *arrezquero neure semea eztacust neure beguietan*. Zer dute amankomunean, bada, (8)ko eta (9)ko *neure* > *ene* kasuek? Hauxe: bietan, LA bete baledi, bi *neure* leudeke perpau berean. Baina ez da hori bakarrik. (8) eta (9) testu osoko kasu bakarrak dira non, LA legea hertsiki bete baledi, perpau berean 1. edo 2. pertsonako genitibozko izenordainen bi forma indartu elkartuko lirakeen. Laburbil dezadan, zifra zehatzekin, egoera. *Neure* 53 aldiz ageri da espero dugun testuinguruan (ik. 1. taula), *neure* > *ene* bakarrik 3 bider gertatzen delarik. Bestetik, 1. edo 2. pertsonako genitibozko izenordainen edozein forma indartu (*neure, eure, geure, zeure, zeu(r)en*) 89 aldiz ageri zaigu testuinguru esperogari batean, *neure* > *ene* aipaturikoez landa *ceure* > *çure* 2 kasurekin. Bada, *neure* > *ene*-ko hiru kasueta-rik, bat 'X-gaz/ekin Y' egitura bat da, eta beste biak LA legearen betetzeak *neure-neure, eure-eure, gueure-gueure, ceure-ceure* edo *ceu(r)en-ceu(r)en* moduko perpau barneko bikoiztapen bat sor lezaketen testu osoko kasu bakarrak dira. Kasualitatea ote? Kasualitatea saiheste aldera, kasu honetan honelako azpilege bat proposa genezake: perpau berean 1. edo 2. pertsonako genitibozko izenordainen bi forma indartu elkartzen baldin badira, lehenak «disimilazio morfologiko» bat pairatu eta neutro mantentzen da. (8) adibidean onartzen ari naiz perpau baten barnean txertatu den menpeko perpau bat haren parte dela, eta hortaz baldintza hau ere formulazioaren barnean sartzen da.⁹

Nolanahi ere den, balizko disimilazio morfologiko hau ezin liteke EBZaren ezaugarri bat izan, Iparraldeko iturrietan ez baita gertatzen. Ikus bitez (10a-b-c):

⁹ Bestetik, ez naiz aintzat hartzen ari bi genitibozko pertsona-izenordain koordinazioan dauden kasuak, dela *edo*, dela *eta* edo dela komaren bidez. Honelakorik ere ez dut topatzen Lazarragaren eskuizkribuan, baina balizko disimilazio morfologikoaren formulazioan kasuok ez lirakeke sartuko.

- (10) a. *Baiña guero, neure azquen ordenuan eta testamentean, manatuco dut neure ondocoa* (Ax, Gero 157)
 b. *Lehen gueure aitaren amoreacgatic barccatu ceracun gueure anaiac* (Ax, Gero 218)
 c. *eta neure nigarrez, neure ohia, boustiren, trempaturen, eta vccuciren diçut.* (Tt, OHB 44)

Lazarragaren eskuizkribuan berean, behintzat behin 3. pertsonako bi genitibozko izenordain agertzen dira perpaus berean:

- (11) *esan eusaen nola emazteagaz joan cidin jardin batera eta beregaz eroan eben Sirena eta Silvia, bere donzellaac.* (AL: 1143v)

Mendebaldeko iturrietan ez dut aurkitu *neure-neure* > *ene-neure* motako disimilazio morfologiko balizko honen paralelorik. Izan ere, Kapanagaren hizkeran LA legea hainbat kasutan ez bete arren, (12) adibidea haren hizkeran gertatzen ez delako zantzua bide da:

- (12) *eta ofrecietan ditudaz neure pecatuen parcaciñoraco, neure vicicea, obraac eta trabajuac* (Kap, EBDC 119 orr.)

Aipatu dudan disimilazio morfologikoa, beraz, inoiz existitu bada, Lazarragaren hizkeraren ezaugarria izango zen. Bi kasu urriegi dira lege edo azpilege irmorik ateratzeko. Gainera, neure buruari (eta irakurleari) iruzurrik ez egiteko, ezin daiteke aipatzeke utzi (9) adibideko *neure* > *ene* haustean neurkerari lotutako motibazio bat izan litekeela tartean. Izan ere, *neurerekin* A25-eko 33. lerroko lehen hemistikioak 9 silaba ditu halabarrean, *ene*-k sinalefa zilegitu eta 8 silabako hemistikioa ahalbidetzen duen bitartean. Ez nuke esango Lazarraga gramatika neurkeraren menpe jartzen dutenetakoa denik, baina ez naiz gai sentitzen gramatika eta neurkeraren arteko tirabirak eztabaidatzeko, are gutxiago Lazarragaren neurkeraren (Patxi Altunaren lanen antzeko) ikerketa sakonik oraindik ez dugula. Disimilazio morfologikoaren proposamena, beraz, geldi bedi eztabaidagai.

3.5. LA legea bokatibozko sintagmetan

Euskal testu zaharretan, duda-muda dago bokatibozko sintagmetako genitibozko pertsona-izenordainekin. Badirudi Leizarragak bokatibozko sintagmak esaldiaren sintaxitik kanpo utzi eta berauetan forma neutroak hobesten dituela (ik. (13a), Sarasola 1980: 435etik mailegatua). Axularrek, ordea, esaldiaren sintaxian integratu ohi ditu, (13b)k eta (13c)k erakutsi legez:

- (13) a. *Ene Jaincoa, Ene Iaincoa, ceren abandonnatu nauc?*
 (Leiz, Mt 27, 46)
 b. *Çaudete beraz iratçarriric, ene anaia maiteac* (Ax, Gero 250)
 c. *Placer espiritualera, arimaco alegriantçara, conuidatu nahi çaituztet, egungo egunean, neure anaia maiteac* (Ax, Gero 287)

Lazarragak bi prozedurak omen darabiltza. Axularrena (14a-b)n ageri da; Leizarragarena (14c-d)n. (14d)n, argi geratzen da Leizarragarena erabiliz gero genitibozko izenordaina esaldiaren sintaxitik at geratuko dela, eta forma neutroa izango dela.

- (14) a. *Ene laztanorrec, / arren, esaçu* (A5: 13-14)
 b. *erruqui nauçu, neure aideac, / [çegaiti nax ni gaztea.]*
 (A24: 39-40)
 c. *ene laztanchoa, / arren, esaçu* (A5: 7-8)
 d. *Çu ecustera etortearren, / ene lindatxo maitea* (A3: 13-14)

Honek, hala ere, azterketa sakonago bat behar luke. Baliteke, adibidez, pertsonen arteko aldeak izatea. Ez du ematen kasualitatea denik Lazarragagan aditzik gabeko perpauis batean dagoen bokatibozko sintagma bateko forma indartu bakarra 2. pertsona bat izatea:

- (15) *A, guiçon doloraduac eta cruelac ceuen bicioendaco!* (AL: 1154v)

Badirudi sakoneko 'zarete' batek eragin duela forma indartua kasu honetan, baina esaldia dagoen modua kontuan harturik, LA legearen haustetzat jotzen da, 1. taulako hirugarren zutabearen.

3.6. *Goiko perpauis [menpeko perpauis hesia]*

Rebuschik (1995: 321-328) egiten duen Axularren hizkeraren deskripzioaren arabera, perpauisen arteko hesiek LA legearen esparrua hertsiki mugatzen dute. Hala izanik, aditz jokatuak perpauis baten barneko genitibozko pertsona-izenordain jakin bat indartua izango da, bakarrik baldin eta aditz jokatu horretako marka bat (alokutiboak albo batera utzita) pertsona horri badagokio. Era berean, aditz jokatu gabeko perpauis baten barneko genitibozko pertsona-izenordain jakin bat indartua izango da, bakarrik baldin eta perpauiseko isileko argumentuetako bati baldin badagokio. Ez bada betetzen perpauis jakin bati dagokion baldintza, goiko perpauiseko argumentu bati egokitzeak ez du forma indartuaren agerpena eragingo, (*ibid.*: 324, 327)tik mailegaturiko (16a-b) adibideek darakuskiguten bezala:

- (16) a. *pro_i-erg barcca iatçagutçu [[çure_i alderacotçat eguiten ditugun] faltac]*
 (Ax, Gero 224)

- b. *Iaincoac pro_i-ABS beguira çaitçala, [vsantça gaixtoac, çure_i baithan, ostatu hartcetic]* (Ax, Gero 65)

Ikusten denez, erreferentziakidetasunak ez du izenordainaren forma indartuaren agerpena eragiten, haien artean gutxienez [hesi bat dagoelako. Itxura guztien arabera, EBZaren ezaugarria dugu hau. Lazarragaren hizkeran, hala aditz jokatu gabeko perpausetan nola aditz jokatu ko menpeko perpausetan, zenbait kasutan hesi(ar)en zeharkaezintasun horrek bizirik dirau:

- (17) a. *cegati leucala esperança andia Jaun Cerucoagan_i, [[ece, [Aen_i Mesede_a servidu içaten liçala,] Sirenac bisitadu balegui,] bertati osatua çala.]* (AL: 1142v)
 b. *pro_i-ERG ençun euen [aen_i alderuç cantaetaz etocela guiçon baçu]* (AL: 1154v)
 c. *pro_i-ERG ez eben gura [nic aren_i causaz eguin neguian negarric]* (B21: 33-34)

Beste zenbait kasutan, ordea, hesia pitzadurak agertzen hasia da, eta erreferentziakidetasunak, hesia zeharkaturik, izenordainaren forma indartua eragiten du. Hau Lazarragaren LA legearen zenbait hausteren arrazoia da, beti neutro > indartu norabidean:¹⁰

- (18) a. *suplicaetan nachaçu, Sirena ene laztana, [pro_i-DAT nai da-quiçula [gaur gabe_an ceure_i aposentuco bentanara joaten]]* (AL: 1140r)
 b. *Aynbat çan Silveroen deseoa [Sirena ecusterren,] [ece erregutu eusan Silviari [pro_i-DAT leguiola ain mesede andia, [ece leguiola bere_i partez Sirenari erregutu [bisitaetan etorri lequiola]]]]* (AL: 1142v)
 c. *[Pensamentuac leucaela / dolorez manteniduric,] / pro_i-ABS remedioa bila citecen, / [eurençat_i gora costaric.]* (A11: 31-34)

Forma indartuen aldeko joera hau areagotuz joango da, Mendebaldean, XVI. mendetik aurrera, eta hesion iragazgarritasuna joera horren arrazoietako bat da. Iparraldean, ordea, hesiak askoz iragazgaitzago gertatu dira, eta hesiaren alde bateko eta besteko elementuen arteko erreferentziakidetasunak ezin izan duenez forma indartuaren agerpena eragin, joera izan da 1. eta 2. pertsonetan forma neutroen orokorpena, eta 3. pertsonetan LA legearen mantentzea.

¹⁰ Hauekin batera *ainbat sartu jate çure bildur[ra], / [berechat naxala gaxto lap[urra]]* (B3: 77-78) ere sartu behar bide da. Horrela interpretatu dut *berechat* 1. taulan, nahiz ez zaidan argi geratzen haren aurrekaria zein den.

3.7. LA legea eta TOGa

Erka bitez, azkenik, LA legeak eta TOGak elkarri eragiten dioten honako kasuok:

- (19) a. *[aren equzten] etorrigo naiz / lebante urrunerean.* (B30: 25-26)
 b. *[oy eta aen gobernaceco] / bear dau andi mañea.* (A24: 77)
 c. *ez çan inor bastadu inor [bere biurquetan].* (AL: 1143r)

(19a, b)-n, LA legea ziur aski EBZearen dagoeneko indarrean zen modu zaharrean betetzen da. Genitiboa izenlagun bat den izen sintagma ez da aditz jokatu gabeko perpauseko osagai bat (*[zure liburua(ren) irakurtzeko,] ahaleginak egin ditut* esaldian bezala), perpaus nagusikoa baizik. Izen sintagma aditz jokatu gabeko perpaus osoa da. Horregatik, hain zuzen, forma neutroa edo indartuaren agerpena zehazten duena perpaus nagusiko aditza da (eta irizpide honi jarraitu diot 1. taulan). (19c)-n, ordea, badirudi aditz jokatu gabeko perpaus ohikoen prozedura (sakoneko argumentuen artean genitiboazko izenordainari dagokiona baldin badago, orduan forma indartua agertuko da, adib. *Bere cantaetea Sirenac acabaduric.*) hedatu dela. Ohar bedi (19c) ez dela egiazki horrelakoa, haren genitiboazko izenordainak ez baitu osatzen, sintagma buru batekin batera, aditz jokatu gabeko perpauseko argumentu (*Bere cantaetea*) edo adizlagun bat. Aitzitik, sintagma burua aditz jokatu gabea bera da. Prozedura zaharra (19a-b)rena zela Axularren honako adibideok darakuskigite:

- (20) a. *edo bai behintzat [[beccatu baten eguitera] çohacinean,][[haren eguitetic] ixtitceco eta guibelatceco.]* (Ax, Gero 83)
 b. *halatan [[Iaincoac bere garaciaren emaita] eta [[gure garacia haren errecibitceco,] eta [harequin batean beccatuaren quentceco] prestatcea] ere,] eguin ditezque laburzqui* (Ax, Gero 133)

Gerora TOGa Mendebaldean goiz desagertu zenez, hau ez da forma indartuen areagotzearen iturri bat izan. Baina nabarmena da Mendebaldean nagusi izan den joerarekiko haren lerrotatzea.

3.8. Azalpenik gabeko LA legearen haustea

Azpiatal honen izenburuarekin ez dut esan nahi, ezta hurrik eman ere, gainontzeko kasuak azaldu ditudanik. Bai, ordea, behintzat hipotesi bat dudala, zuzena edo okerra, eztabaidatzen hasteko. (21a-b)ren legearen haustea azaltzeko, ordea, proposamenik ere ez dut:

- (21) a. *bada bere, erregutan gagoçu [esan deiguçula çure icena]* (AL: 1147v)
 b. *Neure bioça or dauçaçu, / [ondo cateaz loturic.]* (A16: 13-14)

Marka bedi (21a) adibidea Mendebalderako aipatu berri dudana, eta nonbait Lazarragagan dagoeneko hastapanetan bide den, forma indartuen aldeko joeraren alderantzizko norabidean doala. (21b)z denaz bezainbatean, agian aspektu pragmatikoak (galdegaia eta mintzagaiaren jokoak, etab.) har litezke kontuan, baina ene irudiko hauek ez dira beste inon agertzen, Lazarragaren eskuizkribuan, genitiboazko pertsona-izenordainen forma neutro edo indartuen hautapenari loturik ((8) adibidea litzateke hori gertatzen gertuenik legokeena, baina bertan bestelako gertakari batzuk batzen dira). Une bateko arduragabekeriari egotzi beharko dizkiogu?

4. Amaiera

Lazarragaren eskuizkribuan LA legea oro har betetzen bada ere, agertzen hasi dira, legearen galgarri, geroago Mendebaldean nagusituko diren zenbait joera. Horrela, Iparraldeko testu zaharretan (eta itxura guztien arabera EBZean) baino erreferentziakidetasun gehiagok eragin dezakete forma indartuen agerpena, hala nola [A_i eta haren/bere- $_i$ B] egiturako izen sintagmen barnekoak edo perpausen arteko hesiak zeharkatzen dituztenak. Baina bestetik, baliteke EBZetik datorren LA legearen azpilegeren bat Lazarragagan oraindik indarrean izatea, hala nola ‘X-gaz/ekin Y’ egituretan 1. eta 2. pertsonetan genitiboazko izenordainen forma neutroa beti agertzea, testuinguru fonetiko gorabehera. Puntuok ziurtatzeko, hala ere, une honetan iturriak urriegi dira.

Aipamenak

- Arana Martija, José Antonio. 1984. «Sebastian Antonio de la Gandara Bizkaiko idazlea». *Euskera* 29, 499-510.
- Bilbao, Gidor, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole & Blanca Urgell (arg.). 2014. *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. [Interneten eskuragarri: <http://www.lazarraga.com> [Kontsulta: 2014-10-06]].
- Kintana, Xabier. 1971. «Posesiboak idazle zaharretan». *FLV* 7, 75-80.
- Kintana, Xabier. 2004. «Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan». *FLV* 97, 581-595.
- Lakarra, Joseba Andoni (arg.). 1996. *Refranes y sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, Joseba Andoni. 2008. «Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de “Urthubiako Alhaba”». *ASJU* 42(1), 83-100.
- Oyarçabal, Beñat (arg.). 1991. *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne* (= *ASJU*ren Gehigarriak 16). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Padilla, Manuel (arg.). 2011. *Kadet eta Bettiriño* (edizioa). Bilbo: Euskaltzaindia.

- Rebuschi, Georges. 1995. «Weak and Strong Genitive Pronouns in Northern Basque: A diachronic perspective». In J.I. Hualde, J.A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 313-356.
- Sarasola, Ibon. 1980. «Nire/neure, zure/zeure literatur tradizioan». *Euskera* 25, 431-446.
- Satrustegi, José M.^a. 1983. «Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)». In *Piarres Laffiteri omenaldia* (= Iker-2). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Trask, Robert Lawrence. 1997. *The History of Basque*. Londres/New York: Routledge.
- Urgell, Blanca (arg.). 2001. *Guero Guero. Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.